





Oso urte gogorra utzi dugu atzean: 2021. 2020an pandemiak indarrez astindu gintuen, eta kolpeka jarraitu du. Indarrak berrituta arraun egin behar izan dugu gure jarduerari, programei, Bizkaiko enpleguaren eta ekintzaitzaren aldeko ekimen guztiei eutsi ahal izateko.

2021eko ekitaldian gure jasateko eta egokitzeko gaitasuna frogatu da, maila pertsonalean zein komunitarioan. Oro har, gizarteak zein erakunde eta pertsonok errealtate berri bati aurre egin behar izan diogu, eta askotan ez da batere atsegina izan. Ziklo eta aro aldaketa duela bi urte heldu zitzaigun, ohartu gabe ere. Eginbeharrak bikoiztu zaizkigu, eta genuela ere ez genekien indarraz baliatu gara gure burua berritzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiet DEMAk langile guztiei beren ahaleginagatik. Gertaerak gorabehera, irudimenez lanean jarraitu dute eta bakoitzak bere onena eskaintzeko ibilbidean aurrera egin du DEMAk aurrera egin dezan, hau da, enpresa proiektu bat abiarazi dutenei edo lana bilatzen ari direnei lagunduta.

Izan ere, prozesu guztian kontuan izan beharreko gai nagusietako bat honako hau izan da: solidaritatea edo lankidetzaren bezalako printzipioen garrantzia ulertzea, bere sakontasun osoan. Printzipio horiek beti izan dira gure Enplegu eta Ekintzaitzaren Foru Agentziaren oinarria, baina azken aldian are gehiago nabarmendu dira. Ezinbestekoa eta beharrezkoa izan da laguntza ematea eta lankidetzaren aritzea langabezia dauden pertsonekin, ideiak eta proiektu ekintzaile

bati ekiteko gogoia duten pertsonekin, enpresa elkarteekin, hainbat sektoretako enprekin, klusterrekin, prestakuntza zentroekin eta Bizkaiko gure enplegu ekosistemako eta ekintzaitzako beste erakunde batzuekin.

Aurrez aurreko arretaren aldeko ahalegina egin dugu eta, pandemiaren murrizketek utzi ziguten neurrian, Enpresari programaren hogeigarren urteurrena ospatu dugu. Enpresari lanbide heziketako ikasleen artean ekintzaitzaren kultura sustatzeko apustu bat da. Ideiak eta energia duten gazteak; freskotasun nahikoa dutenak gogorarazteko erreleboa dagoela eta bizigarri berriak iristen ari direla gure lurraldeko ekonomia sarera; horren erakusgarri da, hain zuzen ere, hogeigarren edizio honen irabazlea Aziz Oulahbib jatorri marokoarreko gaztea izan dela.

Eta lankidetzaren inguruan hitz egiten badugu, ezin da ahaztu zelako garrantzitsua den beste erakunde batzuekin hitz egitea eta elkartzea; Laborlan, Zubilan edo Enplegu eta Ekintzaitzaren Anezkak bezalako programak jartzeko martxan. Memoria honetan programa horien berri eman da (ezin zitekeen bestela izan).

Gure azken helburua, agertzen zaizkigun zailtasunak gorabehera, pertsonak babesten jarraitzea da, laguntza eskaintzea laneratzeko eta enpresa bat sortzeko. Eta ibilbide pertsonalizatuaren bidez egin behar da, beren gaitasun eta ezagutza mailan ahalik eta eraginkortasun maila handiena lor dezaten, proiektuak arrakastatsuek izan daitezten eta denboran iraun dezaten.



Ibilbide horretatik jarraitzen dugu 2022 honetan, gure agentzia egonkortzen duen aurrekontu batekin, enpleguko politika aktiboak hedatzeko foru tresna nagusi gisa. Aldundiak egiten duen inbertsioa handitu dugu, eta horrek, beste ekimen batzuen artean, enpresa transmisiorako programaren garapena sustatzea, enplegu atari berri bati ekitea eta enplegurako prestakuntza programa berriak gauzatzea ahalbidetuko digu, prestakuntza dualaren esperientzia langabeziarako prestakuntzara aldatzeko.

Itxaropen handiagoarekin begiratzen diogu etorkizunari, pandemiaren aurreko indizeak berreskuratzen ari gara, baina ez gara fidatu behar eta ez gara moteldu behar. Ez gara edozein berreskuratze mailarekin konformatzen... Justua eta denboran jasangarria izan dadila nahi dugu. Lan horretan, DEMA gure agentziak funtsezkoa izaten jarraitzen du, eta funtsezkoa izaten jarraitzen du berau osatzen duten pertsona guztien lana; esperientziaz betetako giza talde bat, aparteko lana egiten duena Bizkaian enpleguaren eta ekintzailetzaren alde.

Lankidetzan jarraitzen dugu, lanean jarraitzen dugu.

Teresa Laespada

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailaren Foru Diputatua



jarduera ildoak





enpresari

Ekintzailletza Lanbide
Heziketan

abian

Enpresen
Sorkuntza

taldeka

Ekintzailletza
Taldeak

eskutik

Abian
Jartzea

hegan

Enpresak
Finantzatzea

sarekin

Ekintzailletza
Sarea

anezka

Enplegu eta Ekintzailletza
Anezkak

laborlan II

Enplegua eta Prestakuntza
Laborategia

zubilan+

Akonpainamendu
Integrala

jarduera berriak

beste jarduerak batzuk



enpresari

PROGRAMA

Ekintzailtza Lanbide Heziketan



HELBURUA:

Bizkaiko gazteen artean enpresako kultura ekintzailea sustatzea.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

Bizkaiko Lanbide Heziketako zentroetako ikasleak eta irakasleak.



Bizkaiko Lanbide Heziketako enpresa-ekintzailtzaren ENPRESARI programaren 20 edizio.

Edizio berezi hau ospatzeko, programaren ideiak eta balioak partekatu ditugu gure laguntzaileekin, Memoria batean eta bideo batean bilduta, eta ohiko jarduerak ere egin ditugu:

- enpresa ekintzailtza ikasgeletara hurbilduta Ekintzailtzarako eta Sakontzeko Tailerretan, negozio propioari ekin diotenen ematen duten errealismoarekin.
- erronka berrien aurrean sormena bultzatu eta sustatuta Ideien Lehiaketan, bi modalitatetan: idatzia eta ikus-entzunezkoa.
- ikaskuntzako eta sakontzeko prozesu batean ideiak aztertuta; horretarako informazioa bilatu, hausnartu, aztertu, kontrastatu eta egokitu egin behar da eta, amaitzeko, Enpresa Proiektuen Lehiaketa, lau hilabetez programako lantaldeko aholkularien laguntzarekin lan egin ondoren.
- berdintasuna lortu nahian enpresaburuen erreferenteekin; eta aurten lortu dugu, gainera,

proiektuetan neska gehiagok (97) parte hartzea mutilek (90) baino, beren ideiak garatzeko.

- Enpresa Proiektuak aurkeztu eta epaimahaikideen aurrean defendatuta ez sari bat irabazteko soilik, baizik eta fasea burutzeko emaitzaren berri emanez, eta lan bat kanpoko beste ikuspegi batzuekin kontrastatu eta esperimentatzeko, beste ikuspuntu batzuetatik begiratuta.
- 20. edizioko Sari Banaketaren ekitaldia Euskalduna jauregian ospatuta; ekitaldi berezi horretan erakundeetako ordezkariak, edizio honetan eta aurrekoetan inplikaturako pertsonak, eta artista gazteek parte hartu zuten, hala nola Aukeran dantza-taldeak, Maite Guevara klown-ak eta Maitane Sarralde dantza bertikaleko dantzariak. Guztien artean ekitaldia paregabea eta atsegina izatea lortu zuten.
- amaierako ekitaldia Guggenheim museoan eginda aurten, edizio berriko parte-hartzaile guztiekin batera, Adela Úcar ekintzailea eta Alex O'Dogherty musikari, aktore eta umorista izanik gidari; azken horrek autogestioari eta ekintzailtzari buruzko bakarrizketa gogoangarria egin zuen.



ENPRESARI PROGRAMA IDEIEN LEHIAKETA 2020 - 2021 - BIDEO SARIDUNAK

- | | | | | | |
|---|--|---|---|--|--|
| <p>1.
GURE TABADUL
Bilboko emakume migratzaileen eta ez-migratzaileen arteko kultur elkartrukea
SAN LUIS ZENTROA</p> | <p>2.
4ART
Artista gazteen sustapena
EMILIO CAMPUZANO</p> | <p>3.
SPEEDAS
Laser gailuak kiroletan abiadura neurtzeko
NICOLÁS LARBURU</p> | <p>4.
GANATXE
Sormenezko gozogintza lantegia
GALDAKAO OSTALARITZ</p> | <p>5.
DIVERSITY DANCE SCHOOL
Dantza eskola
FADURA LH IKASTETXEA</p> | <p>6.
NATURAT
Eskolaz kanpoko jarduera artistikoen zentroa
GERNIKAKO INSTITUTUA</p> |
|---|--|---|---|--|--|

ENPRESARI PROGRAMA PROIEKTU SARIDUNAK 2020 - 2021

- | | | | | |
|---|--|--|---|---|
| <p>1.
DOLORES SOPENA
Bidaia agenzia, Marokora bestelako bidaiak antolatzen espezializatua
OAZIZ
1.500€</p> | <p>2.
ELORRIETA ERREKA MARI
Dibulgazio eta arreta emateko zerbitzuak antzutasunaren arloan
FERTINFO
1.200€</p> | <p>3.
ELORRIETA ERREKA MARI
Salmentarako online plataforma
BARATZETIK
1.000€</p> | <p>4.
EMILIO CAMPUZANO
Industriarako eta turismorako piezen diseinua eta fabrikazioa 3D inprimaketaren bitartez
IzA3D
500€</p> | <p>5.
BIDEBIETA
Furgonetak, kamioiak, 4x4 ibilgailuak eta autokarabanak konpontzea eta kanperizatzea
AYALA CAMPERVANS
500€</p> |
| <p>6.
SAN VIATOR
Haurrentzako eta haurrak aratzeko ekipamenduaren salmenta eta konponketa
BUBBLE BABIES B.B.
500€</p> | <p>7.
JOSÉ MIGUEL BARANDIARAN
Dietetika eta estetika naturaleko zerbitzuak eskaintzen dituen parafarmazia
PARAFARMAZIA, DIETETIKA, ESTETIKA
500€</p> | <p>8.
ZABALBURU IKASTETXEA
Supermerkatu presentziala eta online, zero plastikorekin
GREEN STORE PLASTIKORIK GABEKO PRODUKTU EKOLOGIKOAK
500€</p> | <p>9.
LEA ARTIBAI
Administrazioak eskaintzen dituen lanpostuak eskuratzeko proba ofizialerako prestatzen laguntzeko zentro espezializatua, Durangon
OPOSIKASI AKADEMIA
500€</p> | <p>10.
CPEIPS SAN JOSÉ DE CALASANZ HLBHIP
Ingurumena % 100 errespetatzen duten pack-ak, postreak egiteko errezeptak eta beharrezko osagaiak barne
GOZOGINTZA
500€</p> |

ENPRESARI PROGRAMA EMAITZAK 2021

	TAILERRAK			IDEIAK			PROIEKTUAK		
	KOP.	ZENTROAK	PARTE HAR.	IDEAS	ZENTROAK	PARTE HAR.	PROIE.	ZENTROAK	PARTE HAR.
2021	152	34	2.915	285	31	799	70	30	187
2001etik aurrera	1.973		40.312	3.723		9.589	933		2.497



abian

PROGRAMA

Enpresen Sorkuntza



HELBURUA:

Enpresa -negozioak sortu eta abian jar daitezen sustatzea, negozio ideiak enpresa proiektu bihurtuz, bideragarritasun eta zehaztasun indize handiekin, aldian behin banakako aholkularitza eskeiniz.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

Bizkaiari erroldatuta dauden eta enpresa ideiarekin bat duten pertsonak.

ZERBITZUAREN DEFINIZIOA:

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

• KUDEAKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Iraupena: 30 ordu

Edukia:

- Proiektu bat aztertzeko punturik garrantzitsuenak
- Legezko izapideak eta alderdi juridikoak
- Enpresa kudeatzeko oinarrizko kontzeptuak

• NEGOZIO PLANERAKO AHOULKULARITZA

Edukia: aldian behin bilerak egingo dira banaka, eta, berriazko metodologia erabilita, proiektuan esku hartzen duten aldagaiak aztertuko dira,

negozio plana garatuko da, eta plan horrek bide emango du enpresa abian jartzeari buruzko azken erabakia hartzeko. Osagarri gisa, DEMAK aukera eskaintzen du enpresari aplikatu ahal zaizkion laguntzen mapak egiteko eta autoenplegurako BFAren diru-laguntza izapidetzeko.

• PROIEKTU BIDERAGARRIA > ENPRESA MARTXAN JARTZEA

Laguntzak: Aholkularitza zerbitzurako %100eko dirulaguntza, eta enpresa abian jartzeko gehienez 5.000 euroko diru-laguntza eskuratzeko aukera.

Epeak: Deialdia beti dago zabalik.

ABIAN PROGRAMA EMAITZAK 2021

2021

Pertsonak (on line)	421
Negozio ideiak	781
Negozio planak	669
Sortutako enpresak	327

HISTORIKOA

1989

Emandako ikastaroak	178
Negozio ideiak	13.241
Negozio planak	7.326
Sortutako enpresak	3.699



ABIAN PROGRAMA PERTSONA EKINTZAILERAREN PROFILA 2021


GENEROAREN ARABERA

Guztira: 816




ADINAREN ARABERA

Guztira: 816



PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Total: 816



NEGOZIO IDEIAK JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA

Guztira: 781

Nekazaritza eta abelzaintza	2%
Eraikuntza	6%
Merkataritza, konponketak	27%
Garraioa eta komunikazioa	3%
Finantzak, aseg., enpresei emandako zerb.	2%
Beste zerbitzu batzuk	27%
Profesionalak	17%
Artistak	4%
Ostalaritza	12%



taldeka

PROGRAMA

Ekintzailletza taldeak



HELBURUA:

Langabetuak lanean aktibatzea, ekintzailletzan prestakuntza ematea eta %60ak bere lanpostua sortzea merkatuaren joera berrietara egokituz.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

- Taldeka - Digitala deialdia.
Alor digitalean enpresak sortu nahi dituzten pertsonentzat.

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

LEHEN FASEA:

Hilabetez 23 parte-hartzaileak modu intentsiboan lanean aritu dira, trebetasun pertsonalak eta pertsonen artekoak landu eta garatzeko tailerretan. Talde coaching teknikak landu dira, coach batek gidatutako eta dinamizatutako saioetan. Hori guztia startup proiektuak garatzeko metodologia espezifikoek baliatuta. 2022an geroagoko faseetan laguntza ematen jarraituko dugu.

BIGARREN FASEA:

Hurrengo hilabeteetan, beren enpresa proiektua bideragarri egiteko eta monetizatze lanean

jarraitzen dute. Horretarako, proiektu bakoitzerako laguntza tekniko eta aholkularitza individualizatu eta espezifikoak -ad hoc- jasotzen dute. 2021ean 10 enpresa-proiektu garatu dira, lehen faseko 23 parte-hartzaileekin.

HIRUGARREN FASEA:

2021ean zehar, aurreko deialdietatik eratorritako 10 enpresa martxan jarri dira. Guztiek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren 2021eko autoenplegurako Laguntzen Dekretura sarbide promozionatua izan dute.



TALDEKA PROGRAMA ESTADISTIKAK 2021

2021EKO DEIALDIKO PARTE HARTZAILEEN PROFILA (DIGITALA)


GENEROAREN ARABERA Guztira: 23



PROIEKTUEN JARDUERAREN ARABERA Guztira: 10



TREBAKUNTZAREN ARABERA Guztira: 23





eskutik

PROGRAMA

Abian jartzea



HELBURUA:

Autoenpleguko enpresei eta proiektuei laguntzea jardueraren lehenengo urtean, haien beharretara egokitutako aholkularitza espezializatu baten bidez; horrela, jarraipena bultzatu nahi da enpresa baten bizitzaren garai kritikoenetako batean.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

Taldeka - Ekintzaitzeta Taldeak programaren eta Abian programaren deialdien babespean sortutako enpresak.

DEFINIZIOA:

Programarako ad-hoc garatutako kudeaketa tresna aplikatzea. Laguntza espezifikoa ematea arlo hauetan: kostuak, marketin eta merkataritza, kostuen analisia eta prezioen zehaztapena.

Horrez gain, Taldeka Digitala programatik datozen enpresa digitaletarako laguntza tekniko berezia egokitu da. Enpresa horiek behar espezifikoak dituzte, sektore tradizionaletako enpresek ez dituztenak. Zehazki, garapenaldi oso luzeak

dituzte, eta haien produktuek etengabe pibotatu behar dute. Bereziak dira ere, finantzaketa beharrei dagokienez.

2021. urtean, 2020ko bigarren seihilekoan hasitako aholkularitzak amaitzeaz gainera, aurreko Taldeka eta Abian programen arurreko deialdietatik sortutako 20 enpresa berrirekin hasi gara lanean.

ESKUTIK PROGRAMA 2021EKO EMAITZAK

	DIGITALA	ABIAN
Aholkatutako enpresa kop.	10	10



DIGITALA ABIAN

ESKUTIK PROGRAMA 2021eko JARDUERAREN DATUAK

1
Europako hirien
on line gidak

2
Enpresaren irudian eta
kudeaketan espezializatu-
zatutako aholkularitza

3
Marketing eta
influencer
aholkularitza

4
Arropa- eta
osagarri-marka

5
Tapizak eta
bisuteria saltzea

6
kirol-erakundeen eta
kirolarien community
manager

7
Estilo hawaiiko
atorren on line
salmenta

8
Goi-mailako
kirol-arropa eta
gadget-ak

9
Ordezko
terapiak

10
hirugarren sektoreko
enpresetan espezializatu-
zatutako aholkularitza

11
Kafe salmenta
eta osagarriak

12
Psikologia
aholkularitza
on line

13
Ilustratzailea

14
Moda denda
online

15
Psikologia
kontsulta

16
Escape rooms
kalean eta
enpresetan

17
Neuroerrehabilitazio
zentrua

18
Arropa iraunkorra
on line ekoiztea
eta saltzea

19
Ur tratamenduan
espezializatutako
enpresa

20
Hardware eta
software librea



hegan

PROGRAMA

Enpresak finkatzea



HELBURUA:

Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea eta haren finkatzea bultzatzea merkatuan.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

DEMAren babespean sortu diren eta hiru urte edo gehiago dituzten enpresak.

DEFINIZIOA:

Enpresako egoeraren diagnostikoa.

Adituen aholkularitza espezifikoa, diagnostikoan hautemandako arazoen inguruan, enpresaren negozio egoerari egokitutako soluzioak diseinatzeko.



HEGAN PROGRAMA EMAITZAK 2021

2021. urtean, 33 enpresarekin egin da lan, eta honako jarduera hauek egiten dituzte:

1
MARRAZKETA
TEKNIKOA

2
FISIOTERAPIA ETA
NUTRIZIOA

3
HIZKUNTZEN
IRAKASKUNTZA

4
PUERIKULTURA
KO DENDA

5
TESTU EDO
IRUDI
INPRIMAKETA

6
IGELTSEOTZA
ZERBITZUAK

7
MUSIKA
INSTRUMENTUE
N INTERPRETEA

8
MUSIKA
ESKOLA

9
INDUSTRIARAKO
ZERBITZUAK

10
AKADEMIA

11
DEKORAZIO
ESTUDIOA

12
MUSIKA, KULTURA
ETA PUBLIZITATE
ZERBITZU INTEGRALA

13
IKUS-ENTZUNEZKO
SORMEN ESTUDIOA

14
IKUS-ENTZUNEZKO
PRODUKZIOA

15
MARKETIN ETA PUBLIZITA-
TEA / CROWDFUNDING
SOLIDARIOKO PLATAFO-
MAK KUKUMIKU.COM

16
ILE APAINKETA

17
ILE APAINKETA

18
SUKALDARIA

19
ILE APAINKETA
ZERBITZUAK

20
PSIKOLOGIA
SOZIOLOGIA

21
IGELTSEOTZ
A LANAK

22
LIBURUEN
ARGITALPENA

23
EDERTASUN
ARETOA ETA
INSTITUTUA

24
HANDIZKAKO
SALMENTA: MAKINAK
ETA BULEGOKO

25
FINANTZA ETA
KONTABILITATE
ZERBITZUAK

26
MAKILLATZAILEA
ETA ESTETIZISTA

27
EHUNGINTZA

28
PSIKOLOGIA

29
LURRALDEKO ARDOA-
REN ETA OZPINAREN
HANDIZKAKO SALMENTA

30
EDERTASUN
ARETOA ETA
INSTITUTUA

31
ETXEZ ETXEKO AKONPAI-
NAMENDU TERAPPEUTI-
KOA BESTELAKO ZERBIT-
ZU PSIKOLOGIKOAK

32
COACHING

33
TERAPIA
ALTERNATIBOAK



sarekin

PROGRAMA

Ekintzailletza Sarea



HELBURUA:

Bizkaiko ekosistema ekintzailearen eragile guztien artean lankidetzan aritzea, Sareko lana koordinatzeko, baliabideak bateratzeko eta lurraldeko ekintzaileei eskainitako zerbitzua eta laguntza hobetuko duten ekintza bateratuak planifikatzeko.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

- Ekintzaileen komunitatea
- Ekintzailletzaren arloko eragileak eta erakundeak

Sareko eragile guztien osoko bilkura

Irailaren 16an Bizkaia Aretoan egindako osoko bilkuran gogoeta bateratu bat egin zen, parte hartzeko dinamiken bidez, Sarearen beharrak eta lehentasunak hautemateko eta etorkizuneko pausoak definitzeko, eta, horrekin batera, proiektu bateratuak bultzatzeko.

Sarea berriro aktibatzeke plana. Prestakuntza eta gogoeta

Prestakuntza-gogoeta prozesuak, Impact Hub-en eta Urbegi-TGNren lankidetzaz diseinatu zenak, ezagutza eta baliabideak eman nahi dizkie Sarekin Sareko pertsoneri, lankidetzako komunitateak dinamizatzeko. Bizkaian gure ekintzailletza ekosistema propioa aktibatzeke eta bultzatzeko asmoz, hainbat lan saio egin dira Euskalduna Jauregian, honako gai hauek ardatz hartuta:

- 1) Lankidetzako ekintzailletza ekosistemak garatzea (21/10/22)
- 2) Ekintzailletza ekosistemak indartzeko lankidetzak tresnak (21/11/10)

3) Egoeraren diagnostikoa, gogoeta prozesuaren ondorioak eta 2022/23ko ekintza plana

Sarekin Week II (2021eko aza 29-abe 3)

Bizkaian ekintzailletzan laguntzeko Eragileen Sarea osatzen duten erakundeek antolatutako ekintzailletza astearen bigarren edizioa izan zen, DEMAk koordinatutakoa eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lideratutakoa.

Interakzio espazio bat da, birtuala gehienbat, Bizkaiko ekintzaileen komunitatera orientatuta dagoena. Astebetez jarduera eta ekitaldi interesgarriak antolatzen dira, Bizkaiko ekintzailletzaren gaurkotasuna eta joerak ardatz hartuta.

FOKUA: ekintzailletza inpaktuduna eta jasangarria

Azaroaren 29tik abenduaren 3ra arteko aste horretan, lehenik eta behin, inaugurazio kongresu bat egin zen Iberdrola Dorrean, eta 242 pertsonak eman zuten izena, 109 aurrez aurre eta 133 online parte hartzeko.

SarekinWeek astearen gainerako jarduerak modu birtualean egin ziren, eta Sareko eragile guztiek jarri zituzten hizlariak eta gaiak, hitzaldiak, erronkak eta tailerrak antolatzeko, Bizkaiko joera sozioekonomikoei buruz eta negozio aukeren sorrerari buruz.

Horrez gain, Aholkularitza Zerbitzu pertsonalizatu bat jarri da ekintzaileen esku, eta «Matchmaking» networking birtuala antolatu da berriro, kolaborazioak hasteko eta negozioak bultzatzeko.

Jardueren egitaraua: www.sarekinweek.eus

SAREKIN WEEK IIren EMAITZAK


IZEN EMATEAK GENEROAREN ARABERA



SAREKINWEEK II ASTEAREN EMAITZAK

SAREKINWEEK	2021	2020
IZEN EMATEAK KONGRESUAN	242	269
IZEN EMATE OSOAK ASTEAN	2.976	2.608
JARDUERA KOPURUA	28	30
HIZLARI KOPURUA	64	68

IZEN EMATEAK KOLEKTIBOAREN ARABERA





anezka

PROGRAMA

Enplegu eta ekintzailletza
anezkek

DEFINIZIOA:

Anezkak pertsona langabe, boluntario, aktibo, sozialki ikusgarri eta solidarioen talde heterogeneoak dira, koordinatzaile baten laguntzarekin antolatzen direnak, enplegu bilaketa sustatzeko, bai besteren kontura bai norbere kontura; izan ere, taldekide guztiak lan merkatuan sartzeko hainbat bide eta modu aztertzen dituzte.

2021eko JARDUERA:

- Jarraipena eman zaie 2020an abiarazitako 4 anezkei, martxoan amaitu arte. Bertan 61 langabek parte hartu dute, horietatik 39 emakumeak. Parte hartzaileen % 57,38k laneratzea lortu du.
- Hiru anezka oso egin dira; 2021eko martxoan hasi eta ekainean amaituak. Guztira 45 pertsonak parte hartu zuten, horietatik 31 emakumeak, eta % 64,44ko laneratze tasa lortu zen.
- Bost anezka jarri dira abian eta gutira 78 langabek parte hartu dute, beraien artean 45 emakumeak.

ANEZKA PROGRAMA EMAITZAK 2021

ANEZKAK	PARTE HAR.	G/E	LEKUA	AMAIERA DATA
BILBAO XII	15	10/5	Bilbao	2021eko ekaina
BILBAO XIII	15	10/5	Bilbao	2021eko ekaina
EZKERRALDEA IX	15	11/4	Barakaldo	2021eko ekaina
BILBAO XIV	15	10/5	Bilbao	2022ko otsaila
EZKERRALDEA X	15	9/6	Barakaldo	2022ko otsaila
EZKERRALDEA XI	15	9/6	Barakaldo	2022ko otsaila
NERBIOI IBAIZABAL V	18	10/8	Bilbao	2022ko otsaila
ESKUINALDEA V	15	7/8	Leioa	2022ko otsaila
GUZTIRA 8 anezkak	123	76/47		

	TALDEAK	PARTE HAR.	E/G	LANERATZEA
2021	8	123	76/47	-
Historikoa	41	778	497/281	60,77%

Anezka-Prest

ERANTZUN BAT COVID-19REN ERAGIN TXARRENETAKO BATI:
LANGABEZIAREN GORAKADA ETA LAN PREKARIETATEA

Definizioa: zuzeneko jarduna, profesional baten laguntzaz, % 100 digitala eta intentsiboa, enplegua bilatzeko mugari eta tresna funtsezkoenak lantzen dira taldeko saioetan eta saio indibidualetan, eta adituekin eginiko tailerren bidez.

Helburua: pertsonen lana bilatzeko estrategia bat diseinatzen laguntzea, hala haien enplegarritasuna hobetzeko, lan merkatuak aukerak eskaintzen dituenen haiek hobeto antzemateko eta aprobetxatzeko gai izan daitezzen.

Kolektibo onuraduna: langabezia egoeran edo enplegua hobetzeko prozesuetan dauden pertsonak.

2021eko jarduerak:

Anezka Presten hiru talde egin dira:

- Lehenengo biak %100 on line egin dira, eta hirugarrena mistoa da, aurrez aurreko eta online saioekin.

	TALDEAK	PARTE HAR.	E/G	LANERATZEA
2020	2	33	25/8	40%
2021	3	45	26/19	44%
Historikoa	5	78	51/27	42,31%

EnLANzar

ENPLEGUA BILATZEN JARRAITZEN DUTEN LANGABENTZAKO
LAGUNTZA ETA JARDUERAK

Zerbitzuak:

1. Orientazio zerbitzua: banakako 109 orientazio bilera egin dira.

2. Jardueren programazioa:

- a. Networking saioa enpresekin
- b. Gaitasun digitaletan buruzko tailerra
- c. Negozio ideiak garatzeko jarraipen saioa
- d. Komunikazio tailer eraginkorrak.
- e. Autokandidatura-tailerak: nola aurkeztu zure hautagaitza enpresei/lan-eskaintzak

3. Komunikazio tresnak: plataforma informatikoaren helburua programaren hartzaileei informazioa ematea izan da, honako gai hauen inguruan: lan eskaintzak, eta intereseko jarduerak eta ekimenak. Mezularitza bidezko informazio zerbitzu honen bidez, aukera hauek eskaini zaizkie parte hartzaileei: 97 prestakuntza deialdi, 45ekitaldi, hitzaldi eta kongresu, 58 esteka interesgarri, langileak kontratatzen dituzten enpresei, lan poltsei eta sare sozial profesionalen buruz, 568 lan eskaintza, 3 enplegu eta prestakuntza gida.

Eginiko ekintzetan 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.



laborlan II

PROGRAMA

Enplegua eta Prestakuntza
Laborategia



programa LABORLAN



Queremos dar pasos contigo, acompañarte hacia el empleo.
Zurekin urratsak eman nahi ditugu, enplegurantz lagundu nahi zaitugu.



Asociación de Fundidores
País Vasco y Navarra




BASQUE
HEALTHCLUSTER



Urbegi Inserción



ascobi



bieba



HELBURUAK:

- 1.- Parte hartuko duten langabeen laneratzea lortzea, beharrezkoak dituzten gaitasunak emanez (teknikoak, pertsonalak eta esperientziari lotutakoak), lanbide bat aurkitu dezaten langile kualifikatuen eskaera handiko sektoreetan.
- 2.- Bizkaian kokatutako enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak haien egungo eta etorkizuneko eskaeretara egokituta.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

Lanik gabe edo lana hobetzeko prozesuetan dauden pertsonak: luzaroko langabeak (12 hilabete baino gehiago langabezia), 45 urtetik gorakoak, 30 urte arteko gazteak, emakumeak, COVID-19aren ondorioz langabezia daudenak.

DEFINIZIOA:

Enplegu eta prestakuntzako programa mistoa; Bizkaian enplegurako gakoak diren sektoreetako ordezkari diren erakundeak ere inplikaturik daude, sektoreko enpresetan laneratzea lortzeko helburuarekin, birkualifikazioaren, lan-esperientziaren eta langabeen laguntza integralaren bitartez.

PROGRAMAREN UNE GARRANTZITSUAK:

I. fasea. Prestakuntza: programa hasteko prestakuntza intentsiboko fase bat egiten da, enplegurako gakoak diren sektoreetako espezialitateei dagokienez.

II. fasea. Lan-esperientzia: prestakuntza bukatu

ostean, sektoreko enpresetan lan-esperientzia praktikoa izateko aukera ahalbidetzen zaie parte-hartzaileei, benetako lan-kontratu baten bitartez.

Zeharka: prozesu osoan laguntza integrala eskaintzen da, tutoretza, orientazioa eta babesa emanez lanerako gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko.

ESPEZIALITATEAK/SEKTOREAK:

Sei sektoreetako erakunde garrantzitsuarekin elkarlanean, prestakuntza-programa diseinatu eta enpresa kontratatzaileen prospekzioa egin da. Erakunde horiek funtsezkoak dira, bai sektorearen beharrak zeintzuk diren jakiteko, bai profil eta gaitasun profesionalen eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka ahalbidetzeko.

ILDOA	LAGUNTZAILEA	PRESTAKUNTZA	PARTE-HAR.
ERAIKUNTZA	BIEBA - Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkarte	“Igeltserotza eta pintura”(200h)	20
BIOMEDIKUNTZA	Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunerako Zientzia eta Teknologia Enpresen Klusterra (BASQUE HEALTH CLUSTER)	“Bioestatistika eta kalitatea Bio-osasunaren industriarako”(132h)	15
NEKAZARITZA	EAEko nekazari profesionalen nekazaritza-elkarte (ENBA)	“Nekazaritzako peoi izateko gaikuntza: baratzezaintza (80h)” eta “Basozaintzako peoi izateko gaikuntza: nekazaritzako eta basozaintzako mantentze-lanak” (80h).	14 15
GALDAKETA	Euskadi eta Nafarroako Galdeketa Elkarte (AFV)	Galdaketa-prozesuetako gaikuntza” (120h)	12
ADINEKOAK/MENDEKOAK ARTATZEA	SSI, Servicios Sociales Integrados Taldea	“Adinekoen zaintzaile eta etxez etxeko laguntzaile izateko gaikuntza” (100h)	20
METALA	Urbegi Fundazioa	“Peoi espezialista metalaren sektorerako” (130h)	15


LABORLAN PROGRAMA EMAITZAK

URTEA	EDIZIOA	I. FASEA - PRESTAKUNTZA (Pertsona kop.)	II. FASEA - KONTRATAZIOA (Pertsona kop.)	BEHIN BETIKO LANERATZEA (Pertsona kop.)
2020	LABORLAN I	104 parte-hartzaile/8 erreserba 56E/56G	73 35E/38G	25 13E/12G
2021	LABORLAN II	111 parte-hartzaile/26 erreserba 49E/88G	83 32E/51G	60 22E/38G


LABORLAN II PROGRAMA PROFILAK

LEHEN FASEA: PRESTAKUNTZA

- 30 urte edo gutxiago
- 30 urtetik gora eta 45etik beherakoak
- 45etik gorakoak




II. FASEA: LANEKO ESPERIENTZIA



LANERATZEA

- Emakumeak
- Gizonak





zubilan +

PROGRAMA

Akonpainamendu integrala



HELBURUAK:

1. Parte-hartzaile langileen enplegarritasuna handitzea, laguntza integrala eskainita lana lortzen duten arte.
2. Parte-hartzaileek erantzukizuneko/zuzendaritzako lanpostu bat lortzea.
3. Bizkaiko enpresetan senior profilei ikusgaitasuna ematea, kontzientziarioa eta sentsibilizazioa lortzea profesional horien balio erantsiari eta profesional horiek kontratatzearen onurei dagokienez, adinaren ondoriozko aurreiritziak desagerrarazita.



KOLEKTIBO ONURADUNA:

Langabezian dauden pertsonak, 45 urtetik gorakoak eta Kudeaketa-, zuzendaritza-, burutza- eta erdi-mailako kargudun-lanpostuetan arretik esperientzia profesionala izan dutenak, taldeen kudeaketan eta beste erantzukizun batzuetan.

DESKRIBAPENA:

Zuzendaritzako profila duten 45 urtetik gorako langabeei zuzendutako laguntza integraleko programa.

28 parte-hartzaileek jarrera proaktiboa izan dute, motibatutak egon dira proiektuarekin eta erabateko inplikazioa izan dute lana lortzeko bide osoan.

LANKIDETZAK:

Zubilan Plus programak lankidetzak publiko-privatuaren aldeko apustua egin du, eta parte-hartzaileen laneratzea lortzeko ezinbestekoa da Bizkaiko enpresak ere inplikatzeko, programa ezagutarazteko hainbat ekintzaren bitartez; CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak eta ASCOBI, AVEQ, CECOBI eta FVEM elkarte sektorialekin egin dituzte ekintza horiek, Bizkaiko enpresa ehunean eragilerik adierazgarrienak diren aldetik, eta oso ondo ezagutzen dituztelako enpresek lurralde horretan dituzten lanbide-profilen beharrak.

PROGRAMAREN UNE GARRANTZITSUAK:

I. UNE GARRANTZITSUA. Laneratzeko laguntza integrala:

I. UNE GARRANTZITSUA. Laneratzeko laguntza integrala: Parte-hartzaileak taldetan banatu dira, eta zuzendaritza-profilen laneratzeko-prozesuetako aholkulari bat izan da talde bakoitzaren buru (mentorea), laneratzeko laguntza integrala emanez. Parte-hartzaile bakoitzari bere helburu profesionala bisualizatzen eta planifikatzen lagundu diote, laneratzeko-ibilbidea prestatzen, eta lana bilatzeko estrategia gauzatzean ere ondoan izan dira, banakako eta taldeko sailen bitartez.

II. UNE GARRANTZITSUA. Zeharkako baliabidea

Parte-hartzaileak lana bilatzeko bideratutako gaitasun eta trebetasunetan trebatzeko beharrezkoak izan diren tresnak eskaini ditu programak; izan ere, CEBEK eta IFEFOR elkarten ikastaroen katalogoa izan dute eskura.

III. UNE GARRANTZITSUA. Hautagaien sustapena:

Hautagaiak sustatu eta modu aktiboan ezagutarazi ditu programak, hainbat baliabide erabilia, Bizkaiko enpresen artean, lan-aukerak bilatuz.

Gainera, mentore edo aholkulari bakoitza parte-hartzaile bakoitzaren ondoan egon da aktiboki fase honetan, bere esperientzia, ezagutza eta enpresa-inguruneke kontaktu-sarea eskainiz, aholkuak emanez, eta aukerak bilatzen ez ezik, hautaketa-prozesuetarako aurkezten eta prestatzen ere lagunduz.

PROGRAMAREN DATAK:

Deialdia eta parte-hartzaileak hautatzea: 2021eko ekaina/uztaila

Laguntzeko I. Une Garrantzitsuaren hasiera: 2021eko abuztua

III. Une Garrantzitsuaren amaiera: 2022ko apirila

ZUBILAN+ IZEN-EMATEAK

	GUZTIRA	EMAK.	GIZONAK
Izen-emateak, guztira	183	70	113
Parte-hartzaileak	28	12	16
Lana bilatzeko gaitasunak hobetzeko tailerretan parte hartu dutenak	13	1	12

Laneratzearen emaitzak 2021.12.31an
(programa amaitzeko 4 hilabete falta ziren)

Laneratzeara: % 40

Emakumeak: % 36

Gizonak: % 64

“Sustatu zure talentua eta zure garapen profesionala” TAILER ZIKLOA

Horretaz gain, hautaketa-prozesuan finalista geratu ziren beste 13 pertsonari (12 gizon eta emakume 1) lana bilatzeko gaitasunak hobetzeko aukera eskaini die Zubilan Plus programak, honako gai hauei buruzko tailerren ziklo (19 ordu) baten bitartez:

- Helburu profesionala zehaztea
- Balio-proposamena komunikatzea
- Enpresa-ehunaren erradiografia
- Marka pertsonala

Banakako eta taldeko saioak, aurrez aurrekoak eta “on line”, izan ziren, eta parte-hartzaileek balorazioa oso ona izan da.



jarduera berriak



Bizkaiko enpleguaren ataria

2021. urtean, Demak **Bizkaiko Enplegu Atariaren** proiektua diseinatu eta garatu du. Egitasmoan, web atari bat, mugikorretarako app bat, kudeaketa softwarea eta horiekin lotutako datu base bat gauzatu dira, eta funtzionalitate oso ahaltsuak dituzte erregistratutako profilen analisiak eta estatistikak egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak finantzatzen dituen enplegu programak hedatzeko eta horietara sartzeko web atari bat da, eta DEMA Agentziarekin batera koordinatuko du.

Helburu du bizkaitarrei kanal digital zentralizatu eta eguneratu bat eskaintzea, Enplegua Sustatzeko Foru Sailak finantzatutako prestakuntza eskaintzan eta enplegu programetan erraz sartu eta izena emateko.

Gainera, aukera ematen du norberaren ezaugarrietara gehien egokitzen diren ibilbideak aurkitzeko, leku bakarrean aurkitu baitaitezke norberaren proiektu profesionalean aurrera egiteko aukera onenak.

Era berean, erakunde adjudikaziodunei aplikazio bat izateko aukera ematen die beren izen emateak eta pertsona bakoitzaren egoera kudeatzeko jardueraren amaierara arte, bai eta informazio hori Foru Sailarekin automatikoki partekatzeko ere.

Bizkaiko Enplegu Ataria 2022an jarriko da martxan, Bizkaian enplegu programak kudeatzen dituzten erakunde guztien arteko lankidetzarekin.



Enpresa transmisio PROGRAMA

Azken urteotan enpresa asko ari dira galtzen komertzioan, ostalaritzan eta Bizkaiko beste jarduera sektore batzuetan. Egoera horren eraginez, lanpostuak eta aberastasuna ari da galtzen, baita gure lurraldearen irudia eta erakargarritasuna ere.

Egoera horri aurre egiteko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, Dema Foru Agentziaren bidez, enpresa transmisioko programa bat jarri du martxan. Ekimen horren helburuak honako hauek dira:

- Negoziokoak ez ixtea eta, beraz, enplegua sortzea langabetuen artean.
- Enplegua ez galtzea.
- Ezagutza ez galtzea.
- Hiriguneetan jarduera eta bizitza mantentzea.

2021. urtean, lehen urratsak egin ziren programaren diseinuan eta inplementazioan. Zehazki, transmisio proiektuak garatzeko metodologia bat eskuratu da, erosleak enpresakoak ez diren pertsonak direnean.

Transmisio proiektuei laguntza teknikoa emateko metodologia bat jarri da martxan, erosleak transmititu beharreko enpresako langileak direnean.

Era berean, Behargintzak sareko teknikariak prestatzeko lehen fasea amaitu da, 2022an laguntza teknikoa eman dezaten beren eragin eremuko enpresa transmisioetan.



beste jarduera batzuk



DEMAK eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak 2021ean parte hartu duten ekitaldiak eta jarduerak, helburua izanik informazioa ematea beren zerbitzuei eta enpleguaren eta ekintzailetzaren alorrean herritarren esku jartzen dituzten programei buruz.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ENPLEGU ETA EKINTZAILITZA FORO BIRTUALA

EGUNAK: 2021eko martxoaren 3-4
ANTOLATZAILEA: Deustuko Unibertsitatea

Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta DEMA - Enplegua eta Ekintzailitza Foru Agentziak foro honetan parte hartu zuten stand birtual baten bidez, eta enpleguaren eta ekintzailitzaren alorrean dituzten ekintza-lerro, zerbitzu eta programen berri eman zuten.

50 pertsonari eman zizkieten argibideak, zuzenean horretarako sortutako txat baten bidez. Guztira, 1.339 lagunek parte hartu zuten foroan eta estatuko eta nazioarteko 106 enpresak argitaratutako soslai guztietako enplegu eskaintzen berri jaso zuten.

“WORKINN” ENPLEGU FOROA

EGUNAK: 2021eko urriaren 27-28
LEKUA: Bilbao Exhibition Center
ANTOLATZAILEA: AFM Cluster eta Bilbao Exhibition Center

Estatuko industria enpleguaren azoka, lanean ari diren eta lan baldintzak hobetu nahi dituzten sektoreko profesionalentzat, eta lan aukeren bila dabiltzan langabeentzat. Sektoreko enpresa nagusiek parte hartzen dute azokan, beren lantaldeak zabaltzeko helburuz. Enpresa pribatuez gainera, erakunde publikoak, sektoreko elkarteak eta langileak hautatzeko agentziak.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta DEMA - Enplegua eta Ekintzailitza Foru Agentziaren standak argibideak eman zizkien lan bila dabiltzan edo lan baldintzak hobetu nahi zituzten 60 pertsona ingururi.

MERKALAN - LANBIDEREN ENPLEGU ETA FORMAKUNTZA AZOKA

EGUNAK: 2021eko azaroaren 15-16
ANTOLATZAILEA: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila eta LANBIDE

Euskal enpresen eta lan bila dabiltzan pertsonen beharrei erantzun nahi dien enplegu eta formakuntza azoka, formatu hibrido batean egin zena (presentziala eta birtuala). 141 enpresak eta erakundeek parte hartu zuten, eta 900 lanpostu eskaini zituzten, enpresa sektore guztietakoak, soslai profesional eta formakuntza maila askotarikokoak.

Azokan parte hartu zuten 1.370 lagunek aukera izan zuten DEMAren stand birtuala bisitatu eta txat kanalen bidez adituekin kontaktatzeko. Halaber, plataforma birtualaren bidez, webinarretan parte hartu eta formakuntza aukeren berri izan zuten.

GIVE - GOVERNANCE FOR INCLUSIVE VOCATIONAL EXCELLENCE (2020-24) EGITASMOA

Gizarte Inklusioan arreta jartzen duen Europar Batasunaren Erasmus+ Programak kofinantzatutako proiektua, helburutzat duena bere bazkideek toki mailan inklusioaren alorrean garatzen dituzten jarduerak eta praktikak sendotzea, Bikaintasun Inklusiboaren alorreko haien emaitzak eta inpaktuak ustiatzeko xedez. Proiektuen bazkideen artean daude, besteak beste, Europar inklusioaren alorrean erreferenteak diren LH zentroak, eta didaktika pertsonalizatu bat eta gobernantza eredu malgu eta inklusiboak sustatzen dituzten unibertsitateak eta enpresa agenteak.

DEMA proiektu honen bultzatzaileetako bat da San Viator LH ikastetxearen bitartez, eta Bizkaiko gizarte eta enpresa sareari buruzko bere ikuspegia eta ezagutzak ematen ditu, gizareratzeko indartzen duten nazioarteko praktika berriak ikasteko asmoz.



Bizkaia dema

Barakaldo Ekartegia - Fanderia, 2
48901 Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94 418 90 55
Fax: 94 437 94 36
info@dema.eus
www.dema.eus

programa Zubilan Plus

INDICE DE ECOSISTEMA'S DE IMPACTO 2020

AGENCIA VIAJES "OAZIS" 1500€

dema empresarios 20 años

Pasos para el empleo

programa LABORLAN

SABERLINE... propósitos